



SINATZAILERA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/01/04 18:58



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

LESAKA

“ARITXULEGIKO BORDA ALOKATZEKO DEIALDIA. (105785Z ESPEDIENTEA).

Udal honek hainbat aldietan alokatu du Aritxulegin duen borda (8. poligonoko 1. lurzatia).

Gaur egun bere egunean erabiltzeko baimena amaitutzat eman da eta deialdia berria egin nahi da.

Ikusirik beti ezarritako baldintzak:

Aritxulegiko txabola alokatzeko deialdia onartzea ondorengo baldintzak ezarriz:

- Txabola hori egokitzeko egin behar diren lanak maizterraren kontura izanen dira, Udalak baimena eman ondotik. Horretarako, errentariak idazki bat aurkeztu du eta han adieraziko dira zein diren egin nahi dituen lanak
- Txabola horretan edozein jarduera egin nahi dela ere, udalaren beharrezko baimena lortu beharko da.
- Udaleko langileak, maizterrari abisua eman ondotik, txabolara sartu ahal izanen dira edozein momentuan, haren egoera edo han garatzen diren jarduerak egiaztatzeko.
- Udalak beharko balu, kontratua unilateralki ezabatu ahal izanen du, abisua 3 hilabete lehenagotik eman eta, eta maizterrak ez du inolako eskubiderik izanen kalte-ordainik jasotzeko.
- Kontratua esleitzeko interesa dutenek, eskaintzak aurkeztu beharko dituzte, plegu itxian, Lesakako Udaleko Erregistro Orokorrean, 2024ko urtarrilaren 15eko 15:00ak baino lehen. Kartazalaren kanpoko aldean adierazi beharko da lizitazailearen izen abizenak eta honako testu hau “Aritxulegiko txabola alokatzea”.**
- Lizitazioko hasierako prezioa 50 euro urtean izanen da.
- Adjudikatzen den zenbatekoa urtero eguneratuko da Kontsumo Prezioen Indizearen arabera.
- Txabola 5 urterako adjudikatuko da.



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua
2024/01/04



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA A3PH WR9R XY4D M9DN

Aritxulegiko borda alokatzea - SEFYCU 30517

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

1tik 1 orrialdea